



BAR DENAK BAT ALOKATZEKO BALDINTZEN AGIRIA

LEHENENGO KLAUSULA. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen xedea da Denak Bat tabernaren (Zaldualdea plaza, z/g, Etxauri) zerbitzuaren ustiapena esleitzea. Taberna-jatetxea izango da, eta jende guztiaren zerbitzura egongo da.

BIGARREN KLAUSULA. HAUTATZEKO ETA ESLEITZEKO PROZEDURA

Interesa duen edonork aurkeztu ahal izango du lokala alokatzeko eskaera. Oro har proposamen onuragarriena egiten duen pertsonari esleituko zaio esleipena, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Esperientzia. Lan-bizitzaren bidez egiaztatuko da.
- Finantza-kaudimena. Finantza-erakundearen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

Gainera, elkarriketa bat egingo da argitu beharreko gaiak zehazteko. Eskabidearekin batera, egokitzen den dokumentazio guztia erantsiko da, ondoren baloratzeko. EJZn alta eman beharko da Etxaurin.

HIRUGARREN KLAUSULA. PUBLIZITATEA

Agiri hau Denak Bat erakunde autonomoaren ebazpen bidez onartu ondoren, Etxauriko Udaleko iragarki-oholean eta bere webgunean argitaratuko da, eta eskaerak aurkezteko epea irekiko da.

LAUGARREN KLAUSULA. KONTRATUA ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA

Denak Bat erakunde autonomoa kontratua esleituko du eta eskatzaileei jakinaraziko zaie. Kontratua bi alderdien eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen dokumentu batean formalizatuko da.

BOSGARREN KLAUSULA. ERRENTAMENDUAREN ZENBATEKOA

Errentamenduaren zenbatekoa hilean 500,00 eurokoa gehi BEZa izango da, eta hileko lehenengo hamabost egunetan ordaindu beharko da. Diru-sarrera Etxauriko Udalak duen kontu-zenbakian egingo da, eta gaian errentariaren izena, errentamendua eta hilabetea jaso beharko dira.

Errentariak eskudirutan eman beharko du fidantza, 3 hileko errentari dagokiona. Fidantza hori kontratua amaitzean itzuliko zaio, tabernan kalterik ez dagoela eta errentariak dagozkion gastu guztiak ordainduta dituela egiaztatu ondoren.

Errentamenduaren zenbatekoa Estatistikako Institutu Nazionalak finkatutako kontsumoko prezioen indize orokorrak gehien jasaten dituen aldaketetara egokituko da urtero.

SEIGARREN KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA

Errentamendu-kontratu honen iraupena urtebetekoa izango da. Kontratua urteko epeetan luzatu ahal izango da, salbu eta alderdietako batek kontratua edo haren edozein luzapen amaitu baino hogeita hamar egun lehenago, gutxienez, beste alderdiari ez berritzeko borondatea adierazten badio, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 9. artikuluaaren arabera.

ZAZPIGARREN KLAUSULA. TABERNAREN GUTXIENEN ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera: 8:30etik 21:30era

Ostiral, larunbat, igande eta jai-bezperetan: 9:30etik 24:00etara

Udan (ekaineko jaiak amaituta) 9:30etik 16:00etara eta 19:00etatik 23:00etara

Gabonak:

- Gabon-gaua (abenduaren 24an): 9: 30etik 21:00etara
- Gabonak (abenduaren 25ean): 9: 30etik 15:30era
- Urte berria (urtarrilak 1): 9:30etik 15:30era
- Asteko egun batean asteko atsedena hartuko da.
- Lokala 7 egun naturalez itxita egon daiteke uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean.
- Ekaineko zaindariaren jaiegunen ondoren, errentariak 2 egunez itxita eduki ahal izango du lokala.

ZORTZIGARREN KLAUSULA. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua izango da, eta plegu honetan ezarritakoaren arabera prestatu eta esleitu da. Bertan aurreikusten ez denerako, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legea aplikatuko da.

Etxaurin, 2022ko urriaren 21ean



Idora Arizala Etxarren
Lehendakaria E.A.Denak Bat



DENAK BAT
Kultura eta Kirola
Cultura y Deporte
ETXAURI